




EAEko BPGa %1,5 hazi zen bigarren hiruhilekoan

BPGaren bilakaera Euskadin
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, **EAEko ekonomia %1,5 hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan**, aurrerapenak iragarri zuena baino hamarren bat gutxiago. Hiruhileko arteko tasetan, hazkundera %0,4 izan zen. Azkenik, enpleguaren arloan ere tasa positiboak jaso ziren: %1,5eko urte arteko hazkundera eta %0,7ko hiruhileko artekoa.

Etxebizitzaren salmenta %2,5 jaitsi zen uztailean

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtarriletik uztailean




Iturria: INE.

Uztailean, erregistratutako salerosketen kopurua %2,5 jaitsi zen Euskadin, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hala, azken hilabeteetako balio negatiboak eutsi zaie, interes tasen etengabeko igoeren testuinguru batean, nahiz eta beharrekada nabarmen gutxitu den.



Hoteletan igarotako gaualdiak %6,9 handitu ziren

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: Eustat.

Abuztuan Euskadiko hotel establizimenduetan igarotako gaualdiak %6,9 gehitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, ia 900.000 gaualdi metatu ziren, serie historiko osoan lortutako baliorik handiena baita.

EAEko esportazioak %6,8 gutxitu ziren uztailean

Atzerrira esportatutako ondasunak
Urte bakoitzeko uztailea. Milioi euro



Iturria: Eustat.

Uztailean, Euskadik atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %6,8 jaitsi ziren, iazko uztailarekin alderatuta. Jaitsiera hori produktu energetikoen salmentaren bilakaerak eragin zuen, horien balioa %79,2 murriztu baitzen. Aitzitik, produktu ez-energetikoena %4,4 handitu zen.